

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Lizarraren Erdi Aroko iraganak Nafarroaren identitatea osatzen izandako papera nabarmendu du

Erdi Aroko Ikerlanen Astearen inaugurazioan parte hartu du gaur goizean. Aurten, landaren eta hiriaren arteko gatazketan oinarrituko da

Asteartea, 2017.eko uztailak 18

Nafarroako Lehendakariak, Uxue Barkosek, gaur goizean nabarmendu du "Lizarrak izandako Erdi Aroko iragan bikaina, bizilagunen lanerako gogoan, adiskidetasunean eta ulermenean oinarritua" eta "Nafarroako biztanle guztien nortasuna eraikitzeko egindako ekarpena".



Barkos Lehendakaria publikoari hitz egiten.

Horrela adierazi du [Erdi Aroko Ikerlanen Nazioarteko 44. Astea](#) inauguratzerakoan. Aste hori gaur asteartetik ostiralera (21) bitarte egingo dute Egaren hirian, eta XII. eta XV. mende artean hiriaren eta landaren artean izandako tentsio eta gatazketan oinarrituko da. Halaber, nabarmendu du, lau egun horietan zehar, "parte-hartze eta eztabaida zientifikoko foroak nazioartean garrantzi handia izango duela, eta Lizarra eta Nafarroa Europako mediebaldismoaren epizentroan kokatuko dituela"; era horretan, "ideiak trukitzea eta ezagutza historikoa bultzatuko dituen esparrua" dela esan du.

Horrez gain, topaketaren nazioarteko izaera eta iaztik ikerlari gazteei eta unibertsitateko doktoregaiei beren tesiak eta ikerketa-proiektuak hedatzeko eskaintzen dien aukera aipatu nahi izan ditu. Gainera, Erdi Aroko Azterketen Espainiako Sozietatea erakunde kolaboratzaileen taldean sartzea goraipatu du.

Bestalde, Koldo Leoz alkateak Lizarrak Erdi Aroko Ikerlanen Nazioarteko Astea bultzatzearen eta indartzearen alde egindako apustua nabarmendu du.

Erdi Aroko Ikerlanen Nazioarteko Astearen 44. edizioa

Erdi Aroko Azterketen Nazioarteko Astearen 44. edizioan, hiri menderatzeen egiturak, nekazarien erreboltak eta tentsioak eta erresistentziak jorratuko dira egun hauetan, XII. eta XV. mendeen artean hiriaren eta landa-ingurunearen artean izandako tentsio soziala mahaigaineratu eta eztabaidatzearekin batera, Nafarroako mendian

bizitako gatazka barne.

Bertan izango dira Italia, Frantzia, Erresuma Batua, Portugal eta Espainiako adituak. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta hizlari-koordinatzailea den Juan José Larrearen hitzetan, Erdi Aroko Azterketen Astearen helburua izango da "bi eremuen arteko tentsio-modu ugari aztertzea, matxinada masiboa eta indartsua bistakoena baina ez bakarria den haietan: "isilik" erantzuteko moduak badaude eta menderatzea eta liskarra bideratzen dituzten modu instituzionalak ere bai". Era berean, aktoreak zeintzuk diren, jarduera horiek zergatik egiten dituzten, bezalako galderak erantzuten ahaleginduko dira edota eguneroko paisaian, lengoian eta gobernuan menderatzeak eta erresistentziak hartzen dituzten moduak azaltzen.

Ingalaterra, Portugal, Gaztela, Aragoiko Koroa, Frantzia eta Nafarroa izango dira Aste honetako agertoki, eta Glasgow, Lisboa, Madril, Sevilla, Valentzia, Zaragoza, Paris, Montpellier eta Boloniatik etorritako espezialistek jorratuko dituzte. Horiei gehitu behar zaie Unibertsitate hauetako ikerlari gazteen ekarpena: Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea, Bartzelonako Unibertsitatea, Tarragonako Universitat Rovira i Virgili, Université de Pau et des Pays de l'Adour, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea.

Mahai-inguruen eta hitzaldien osagarri gisa, eta aurreko edizioetan egin den moduan, Lizarrako hiria bertan izango da herritar guztiei irekitako tailerlean, Gustavo de Maeztu Museoan, "Estella-Lizarraren ondare dokumentala" izenburupean. Lizarrerriko Ikerketa Gunea antolatutako tailer honetan ahaleginduko dira hiriko Udal Artxiboko pieza dokumental adierazgarrienak herritarrengana gerturatzeko.

Nafarroako Gobernuarekin batera, topaketa antolatzen aritu dira Lizarrako Udala, Lizarrerriko Ikerketa Gunea, "Los Amigos del Camino de Santiago de Estella" Elkarteak, eta, aurrean aipatu moduan, Erdi Aroko Azterketen Espainiako Sozietatea; azken horren parte-hartzea funtsezkoa izaten ari da programa estatuan zein nazioartean hedatzeko.

Astearen Batzorde Zientifikoa honako hauek osatzen dute: Eloísa Ramírez irakasleak (Nafarroako Unibertsitate Publikoa) eta Julia Pavonek (Nafarroako Unibertsitatea), Pascual Martínez Sopenak (Valladolideko Unibertsitatea), Véronique Lamazou-Duplan-ek (Université de Pau et des Pays de l'Adour) eta Juan Jose Larreak, Astearen edizio honen hizlari-koordinatzaileak eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak.

Galería de fotos



Koldo Leoz alkatea, Lehendakaria eta Larrea irakaslea inaugurazioan zehar.



Erdi Aroko Ikerlanen Nazioarteko 44. Astearen kartela.



Inauguraziora bertaratutako publikoa.